

## Diploma banaketa MUko ingeniari-tza teknikoan eta graduan titulatu- ei

2014/05/19

Guztira, 235 tituladun izan dira tituluaren merezidun, horietatik 14 diploma Ingeniaritza Teknikoan eta 221 bigarren promozioaren Goi Eskola Politeknikoko Gradu-ko espezialitate desberdinetan.

Abantail kooperatibako gerente Sonia Ortubaik "Bizipenak: Nireetatik zuenetara: Vivencias: de las mías a las vuestras" hitzaldia eskaini die bertaratutakoei eta Mondragon Unibertsitateko ingeniari-tza tituladun berriei.

Titulu horiek lortzeko, ikasle guztiek, gutxi gorabehera, urtebeteko Karrera Amaierako Proiektua egin dute, enpresaren batekin lankidetzan. Horietako enpresa asko atzerrikoak izan dira: Danimarkakoak, Italiakoak, Txekiar Errepublikakoak, Frantziakoak, Poloniakoak, Austriakoak, Suediakoak, Alemaniakoak, Erresuma Batukoak eta Belgikakoak, besteak beste.

Honetaz gain, ekitaldian 5 ikaslek aipamen berezia jaso zuten, espediente akademikorik onenei karrera amaierako Kutxa Fundazioa saria azaroan jaso zutenek hain zuzen.



Diploma banaketa MUko ingeniari-tza teknikoan eta graduan titulatu-  
ei



